



ZIUR FUNDAZIOA

***2021EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUAK,
IKUSKAPEN TXOSTENAREKIN BATERA***

***CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2021
JUNTO CON EL INFORME DE AUDITORÍA***



ZIUR FUNDAZIOA

***2021EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUEN
IKUSKAPEN TXOSTENA***

***INFORME DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES
ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2021***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA- TXOSTENA

ZIUR FUNDAZIOKO Patronatuari:

Iritzia

ZIUR FUNDAZIOAren (Fundazioa) urteko kontu laburtuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek, 2021eko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion emaitza-kontuak eta memoriak (guztiak eredu laburtuan) osatzen dituzte.

Gure iritiz, erantsitako urteko kontu laburtuek, arlo esanguratsu guztietan, 2021eko abenduaren 31n Fundazioaren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2.1 oharrean adierazten dena), eta bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak* atalean zehazten dira.

Fundazioarengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzaileraren arabera ezinbestekoa

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

Al Patronato de ZIUR FUNDAZIOA:

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de ZIUR FUNDAZIOA (la Fundación), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2021, la cuenta de resultados y la memoria (todos ellos abreviados), correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Fundación a 31 de diciembre de 2021, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2.1 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas* de nuestro informe.

Somos independientes de la Fundación de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo



den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta urteko kontu laburtuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Kontu-ikuskaritza aldaketa

Hau izan da gure lehen urtea Fundazioaren ikuskaritzan, eta, beraz, ikuskaritza modu efektiboan planifikatu dugula bermatzeko, (i) bilera antolatu dugu aurreko ikuskatzailearekin, haren laneko dokumentuak berraztertzeko; (ii) Fundazioaren kontabilitate-politikak eta iazko finantza-egoerak ebaluatu ditugu; (iii) Fundazioaren zuzendaritzarekin bilera egin dugu, kontrolaren ingurunea eta haren prozesuak ulertu ditugula ziurtatzeko; eta (iv) aurreko ikuskatzailearen laneko dokumentuak berraztertuta, ikuskaritza-laneko gure lehen urtearen hasieran irekiera-saldoak zenbatekoak ziren jakin dugu. Ondoren, gure ikuskaritza planifikatu dugu, amaierako saldoak jakiteko, lan hori kontuan hartuta.

establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstas, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Cambio de auditores

Éste ha sido nuestro primer año como auditores de la Fundación, por lo que para asegurarnos de que hemos planificado nuestra auditoría de manera efectiva (i) hemos organizado una reunión con el auditor predecesor para revisar sus documentos de trabajo, (ii) hemos realizado la evaluación de las políticas contables de la Fundación y de los estados financieros del año anterior, (iii) hemos mantenido una reunión con la dirección de la Fundación para cerciorarnos de que hemos alcanzado un entendimiento del entorno de control de la misma y de sus procesos y (iv) como parte de nuestra revisión de los documentos de trabajo del auditor predecesor, hemos obtenido evidencia de los saldos de apertura al inicio de nuestro primer año como auditores. A continuación, hemos planificado nuestra auditoría para obtener evidencia de los saldos finales teniendo en cuenta este trabajo.



Enfasi-paragrafoa

Erantsitako urteko kontu laburtuen 11 eta 12 oharrek azpimarratzen ditugu, zeinetan adierazten den Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere helburu sozialetik eratorrita, diru-laguntza arrunten eta kapital-diru-laguntzen bidez, Fundazioak garatutako jardueraren zati handi bat finantzatzen duela, urte ekonomiko bakoitzaren amaieran, honek emaitza orekatu bat izan dezan. Fundazioaren urteko kontu laburtuak testuinguru horretan ulertu behar dira. Egoera honek ez du gure iritzia aldatzen.

Bestelako gaiak

2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Fundazioaren urteko kontu laburtuak beste kontu-ikuskatzaile batek ikuskatu zituen eta aldeko iritzia adierazi zuen 2021eko apirilaren 28an.

Urteko kontu laburtuen inguruan, Patronatuko Lehendakariaren erantzunkizuna

Patronatuko Lehendakariaren erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Fundazioaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, Fundazioari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu laburtuak prestatzeko bere ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, Patronatuko Lehendakariaren erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen entitate bezala jarraitzeko Fundazioak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen entitatearekin zerikusia duten gaiak adieraziko ditu funtzionamenduan

Párrafo de énfasis

Llamamos la atención sobre las notas 11 y 12 de las cuentas anuales abreviadas, en las que se indica cómo derivado de su objeto social, la Diputación Foral de Gipuzkoa financia en una parte significativa, mediante subvenciones corrientes y de capital, la actividad desarrollada por la Fundación, de forma que, al final de cada ejercicio económico, la misma refleje un resultado equilibrado. Las cuentas anuales abreviadas de la Fundación han de entenderse dentro de este contexto. Nuestra opinión no ha sido modificada en relación con esta cuestión.

Otras cuestiones

Las cuentas anuales abreviadas de la Fundación correspondientes al ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2020 fueron auditadas por otro auditor que expresó una opinión favorable sobre las mismas el 28 de abril de 2021.

Responsabilidad del Presidente del Patronato en relación con las cuentas anuales abreviadas

El Presidente del Patronato es responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Fundación, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales abreviadas, el Presidente del Patronato es responsable de la valoración de la capacidad de la Fundación para continuar como entidad en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la entidad en funcionamiento y utilizando el principio contable de entidad en



dagoen entitatearen kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da Patronatuko Lehendakariak Fundazioa likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa duenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dazakenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu laburtuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita

funcionamiento excepto si el Presidente del Patronato tiene intención de liquidar la Fundación o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales abreviadas.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones



egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.

- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Patronatuko Lehendakariak emandako informazioa ere.
- Patronatuko Lehendakariak funtzionamenduan dagoen entitatearen kontabilitate-printzipioa egoki erabili duen ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen entitate bezala jarraitzeko Fundazioak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Fundazioak funtzionamenduan dagoen entitate izatez utz dezake.
- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu laburtuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.

- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Presidente del Patronato.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Presidente del Patronato, del principio contable de entidad en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Fundación para continuar como entidad en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Fundación deje de ser una entidad en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.



Fundazioko Patronatuko Lehendakariarekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Fundazioko Patronatuko Lehendakariari jakinarazi zaizkion arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Donostia/San Sebastián, 2022ko ekainaren 6an

Nos comunicamos con el Presidente del Patronato de la Fundación en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación al Presidente del Patronato de la Fundación, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Donostia/San Sebastián, a 6 de junio de 2022

Betean Auditoría, S.L.P.

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea/
Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1.354)

José Ignacio Miguel Salvador
(ROACean 11.305 zenbakiz inskribatuta/
Inscrita en el ROAC con el nº 11.305)



ZIUR FUNDAZIOA

2021 EKITALDIKO URTEKO KONTUA LABURTUAK

CUENTAS ANUALES ABREVIADAS DEL EJERCICIO 2021

A handwritten signature in blue ink, consisting of several intersecting lines, is located in the bottom right corner of the page.

ZIUR FUNDAZIOA

C.I.F. G-75203067

**2021EKO ABENDUAREN 31KO LABURTUTAKO
URTEKO KONTUAK**



Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

LABURTUTAKO URTEKO KONTUAK – 2021 EKITALDIA

- **Laburtutako Egoera-Balantzea**
- **Laburtutako Emaiza-Kontua**
- **Laburtutako Memoria.**



Javier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

LABURTUTAKO EGOERA BALANTZEA

2021 ekitaldia



Javier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

ZIUR FUNDAZIOA

2021/12/31 RI DAGOKION EGOERA BALANTZEA

ACTIVO	MEMORIAKO NOTAK	2021	2020
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		748.375,39	832.014,32
I. Ibilgetu ukiezina	5	78.001,19	51.746,69
III. Ibilgetu materiala	5	666.199,36	776.092,79
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	2,6	4.174,84	4.174,84
B) AKTIBO ARRUNTA		1.138.343,11	973.568,29
V Epe laburreko periodifikazioak	9	50.941,00	49.731,00
VII. Eskudiruak eta bestelako aktibo likido baliokideak	7	1.087.402,11	923.837,29
AKTIBOA GUZTIRA (A+B)		1.886.718,50	1.805.582,61

PATRIMONIO NETO Y PASIVO	MEMORIAKO NOTAK	2021	2020
A) ONDARE GARBIA		1.705.261,35	1.555.344,41
A-1) Fondo propioak			
I. Fundazioaren zuzkidura / Fondo soziala		30.000,00	30.000,00
1. Fundazioaren zuzkidura / Fondo soziala	8	30.000,00	30.000,00
IV. Ekitaldiko soberakina(*)	3	-	-
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	1.675.261,35	1.525.344,41
B) PASIBO EZ-KORRONTEA		2.491,27	550,00
II. Epe luzeko zorrak.			
3. Epe laburreko beste zor batzuk.	2,9	2.491,27	550,00
C) PASIBO ARRUNTA		178.965,88	249.688,20
II. Epe laburreko zorrak		83.026,92	39.239,34
3. Epe laburreko bestelako zorrak	2,9	83.026,92	39.236,34
V. Hartzekodun kometzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		95.938,96	210.451,86
2. Hainbat hartzekodun	2,9	95.938,96	210.451,86
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)		1.886.718,50	1.805.582,61

Irakurri erantsitako memorian jasotako azalpen-oharrekin


 Javier Larrañaga Garmendia jauna
 Presidentea

LABURTUTAKO EMAITZA- KONTUA

2021 ekitaldia



Jabier Larranaga Garmendia jauna
Presidentea

ZIUR FUNDAZIOA

2021/12/31 -KO EKITALDIARI DAGOKION EMAITZEN KONTUA

	NOTAK	2021	2020
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak	11	790.481,41	631.997,01
d) Ekitaldiko sobreakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		790.481,41	631.997,01
8. Pertsonal-gastuak	11	(318.060,47)	(287.446,42)
9. Jarduerako bestelako gastuak	11	(472.420,94)	(344.550,59)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	11	(172.033,20)	(100.090,62)
11. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	172.033,20	100.090,62
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)		--	--
14. Finantzako diru-sarrerak		--	--
15. Finantzako gastuak		--	--
A.2) ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA (14+15+16+17+18)		--	--
A.3) ZERGA APLIKATU AURREKO EMAITZA (A.1+A.2)		--	--
A.4) Ekitaldiko soberakinean onartutako ondare garbiaren aldaketa (A.3+19)		--	--
B) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuak			
1. Jasotako diru-laguntzak	12	321.950,14	237.253,51
B.1) Ondare garbian zuzenean aitortutako ondare garbiaren aldaketa diru-sarrera eta gastuengatik (1+2+3+4)		321.950,14	237.253,51
C) Ekitaldiko soberakinari birsailkapena			
1. Jasotako diru-laguntzak		(172.033,20)	(100.090,62)
C.1) Ekitaldiko soberakinari birsailkapenengatik aldaketa ondare garbian(1+2 +3+4)		(172.033,20)	(100.090,62)
D) Ondare garbian zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuengatik aldaketak ondare garbian (B.1+C.1)		149.916,94	137.162,89
G) Fundazioaren zuzkiduran aldaketak		--	--
I) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN (A.4 +D+E+F+G+H)		149.916,94	137.162,89

Irakurri erantsitako memorian jasotako azalpen-oharrekin


 Iñaki Larranaga Garmendia jauna
 Presidente

LABURTUTAKO MEMORIA

2021 ekitaldia



Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

FUNDACIÓN ZIUR FUNDAZIOA

1.Oharra.- Fundazioaren jarduera

2018ko uztailaren 10ean, Ziur Fundazioaren izendapenarekin, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenak eta Donostiako Udal Txit Gorenak Fundazio bat eratu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearekin bat etorritik, denbora mugagabez. Horren identifikazio fiskalaren zenbakia G75203067 da.

Fundazioa erakunde pribatu bat da, irabazteko asmorik gabe eratua, eta bere fundatzaileen borondateari jarraiki, bere ondarea interes orokorreko helburu batzuk egiteko xedatua du iraunkorki. Horrela, Gipuzkoako Lurralde Historikoak ekoizpen aurreratuaren alorrean eta zibersegurtasun industrialaren alorrean bereziki dituen gaitasunak indartzea da Fundazio honen helburua, eta horrez gain, sektore teknologikoaren garapena sustatzea eta Gipuzkoako enpresek eta, bereziki, industria-sektorekoek nazioartean duten lehiakortasuna eta posizionamendua indartzea. Hain zuzen ere:

- a) Zibersegurtasunaren alorrean ezagutzak sor daitezela bultzatzea.
- b) Eragileak, enpresak eta industriak sentsibilizatzea eta prestatzea.
- c) Zibersegurtasunarekin loturiko jarduerak enpresetan zabaltzea eta horrelakoak ezar ditzatela ahalbidetzea.
- d) Aurrea hartzeko eta esku hartzeko erremintak eskaintzea.

Fundazioaren helburuak erdiesteko, ondorengo jarduerak egin ahal izango ditu Fundazioak:

- a) Ikerketak eta ezagutzak sortzea eta transferitzea sustatu ahal izango du Zibersegurtasun Industrialaren Zentro Aurreratu bat sortuz, eta halaber, produktu, prozesu eta zerbitzuen ikerketarako eta ziurtaginaren laborategi bat eratu dadila bultzatuko du, baita zibersegurtasun industrialaren alorreko ikerketak ere.
- b) Bereziki industriako eragileen eta profesionalen sentsibilizazioa eta prestakuntza helburutzat duten jarduerak garatuko ditu, besteak beste, kanpaina teknikoak, mintegiak, hitzaldiak eta foroak antolatuz, heziketa-material bereziak sortuz, laguntzaile akademikoekin foro akademikoak eta ikastaroak eratzuz, eta halaber, zibersegurtasunaren alorrean sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzeko xedea duten bestelako jardunaldiak.
- c) Zibersegurtasunarekin loturiko jokabide egokiak zabaldu eta finkatzea xedetzat duten kanpainak eta jarduerak bultzatuko ditu, informazioa zabalduz, teknologiaren behatoki bat finkatuz eta metodologiak zehaztuz eta garatuz. Aurrea hartzeko eta esku hartzeko erremintak garatu eta horrelakoen garapena sustatu du, balizko segurtasun-ezen aurrean egoki erantzun delako ziurtatzearen, diagnostikoak egiteko erremintak eskainiz, gidak prestatuz, ezbeharrei emandako erantzunak koordinatuz eta alerta eta ohartarazpenerako zerbitzuak garatuz. Ziur Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren baliabide propio pertsonifikatuaren izaera du, eta haiek enkarguak eman ahal izango dizkiote, kontratuen kontsiderazio juridikorik eduki gabe, kasu bakoitzean dagozkion organoek erabakitzen dituzten hitz eta baldintzetan, eta Herri Administrazioei aplikagarri zaien erregimen juridiko eta administratiboarekin bat etorritik.

"Ziur Fundazioa" Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren bitarteko propio pertsonifikatua da, eta enkarguak eman ahal izango dizkiote. Enkargu horiek ez dira kontratuen izaera juridikoa izango, kasuan kasuko organoek zehaztutako moduan eta baldintzetan, eta administrazio publikoei aplikagarri zaien araubide juridiko eta administratiboaren arabera

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidente

Fundazioak ezingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak antolatzen dituzten lehiaketa publikoetan parte hartu, nahiz eta, beste inolako lehiatzailezik ez dagoen kasuetan, horien xede den prestazioa gauzatu dezala eskatu ahal izango zaion.

Fundazioaren helbidea Donostiako Zuatzu Industrialdeko a. Urola Eraikina, 1. solairua da.

Fundazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan burutuko ditu nagusiki bere jarduerak, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetara ere hedatu ahal izango dituen.

2018ko azaroaren 12an Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko Sailburuak erabaki zuen "Fundación Ziur Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea f-436 erregistro-zenbakiaz.

Fundazioak ez ditu ikuskatze-baldintzak betetzen, ondoz ondoko bi ekitalditan ez baititu bi baldintza bete, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 33. artikuluan zehaztutakoaren arabera. Dena den, kontuen kanpo-ikuskapena egiten du, erakunde publikoen aldetik 600.000 eurotik gorako dirulaguntzak jasotzen ditunez, horretarako obligazioa baitu.

Ekitaldi ekonomikoa 2021/01/01an hasi eta 2021/12/31n amaitu da.

2.Oharra.- Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

1. Irudi leiala

Honekin 2021 ekitaldiari dagozkion urteko kontuak 2021eko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetatik abiatuta formulatu dira, eta, horrez gain, irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorriari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredua onartzen dituen urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen jarduera-planaren eredua, ICACen 2013ko martxoaren 26ko ebazpenak. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plana eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen Kontabilitate Plana onartzen dituztenak, aurreko arauak berariaz aldatu ez duten guztian, 1514/2007 Errege Dekretua aplikatuko da, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legea, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legea eta kontabilitatearen arloan indarrean dauden gainerako lege-xedapenak, eta Erakundeen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dutenak.

Urteko Kontu hauek, Egoera Balantzea eta Emaizten Kontua eta Memoria osatzen dituzten agirietan jasotako zenbakiak euroetan dezimalekin adieraziak daude.

Irudi leial hori erakusteko orduan ez da salbuespenezko arrazoirik egon kontabilitate alorreko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

Honekin batera doazen Urteko Kontuak Patronatuaren Batzordeak onetsi beharko ditu, eta inolako aldaketarik gabe onetsiak izatea espero da.

Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2021eko maiatzaren 4an onartu zituen Patronatuko Batzordeak.


 Javier Larrañaga Garmendia jauna
 Presidente

2. 2021 KPOko aldaketaren lehen aplikazioaren ondorioak

2021eko ekitaldian, kontabilitate-arau berriak sartu dira indarrean, urteko kontu hauek egitean kontuan hartu direnak, eta fundazioarentzako kontabilitate-politiken aldaketarik eragin ez dutenak.

Hauek dira 2021eko urtarrilaren 1ean hasi zen ekitaldian nahitaez aplikatu beharreko 2007ko KBParen kontabilitate-arauek aldaketak lehen aldiz aplikatzearen ondoriozko aldaketen eragin nagusiak:

9. araua. Finantza-tresnak eta kontabilitate-estaldurak

Ez da eragin nabarmenik izan finantza-tresnen sailkapenean eta balorazioan, ezta ondare garbian ere, irizpide berrien ondorioz:

Aktibo eta pasibo finantzario mota bakoitzaren 2021.01.01eko kontziliazioa, non hasierako balorazio-kategoria eta aurreko araudiaren arabera zehaztutako liburutako zenbatekoa jasotzen diren, baita balorazio-kategoria berria eta irizpide berrien arabera zehaztutako liburutako zenbatekoa ere.

Epe luzerako finantza aktiboak

		Saldoa 2021eko urtarrilak 1	Honela birsailkatu da:
			Kostu amortizatuko finantza aktiboak
Honela birsailkatu da:	Epe luzeko inbertsio finantzarioak	4.174,84	4.174,84

Epe luzerako finantza pasiboak

		Saldoa 2021eko urtarrilak 1	Honela birsailkatu da:
			Kostu amortizatuko finantza pasiboak
Honela birsailkatu da:	Débitos y partidas a pagar	550,00	550,00

Epe motzerako finantza pasiboak

		Saldoa 2021eko urtarrilak 1	Honela birsailkatu da:
			Kostu amortizatuko finantza pasiboak
Honela birsailkatu da:	Débitos y partidas a pagar	227.189,15	227.189,15

Lehen aplikazioa atzeraeraginez egin da, eta Fundazioak erabaki du informazio konparatiboa ez berradieraztea.


 Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Presidente

14. araua. Salmenten eta zerbitzu-prestazioen diru-sarrerak

4.5 oharrean aipatzen den bezala, ondasun edo zerbitzu baten kontrola bezeroari transferitzen zaionean bezeroarengandik jasotzea espero den zenbatekoaren arabera ezagutzen dira diru-sarrera arruntak. Kontrol-transferentzia une batean edo denboran gerta daiteke. Kontratu berean bezeroarekin bete beharreko betebeharrak bat baino gehiago sartzen bada, bete beharreko betebeharrak dagozkien salmenta-prezio independenteen arabera aitortuko da diru-sarrera. Horretarako, bost urratsetan oinarritutako aintzatespen-ikuspegia sartzen da.

Fundazioak batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak emandako kapital eta ustiapen diru-laguntzengatik jasotzen ditu diru-sarrerak. Zuzendaritzaren ustez, arau horrek ez du eraginik Fundazioaren emaitzan, eta, beraz, irizpide berri horien lehen aplikazioan, ez da finantza-egoeren partidarik ukitu aurreko ekitaldiaren itxieran aplikatu beharreko arauarekiko.

3. Aplikatutako kontabilitate-printzipioak (ez dira nahitaezkoak)

Nahita 2021eko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruari jarraitu zaio, eta, bereziki, 4. oharrean deskribatutako erregistro- eta balorazio-arauei. Administrazioaleek urteko kontu hauek formulatu dituzte, urteko kontu horietan eragin esanguratsua duten nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak kontuan hartuta. Ez dago kontabilitate-printzipiorik urteko kontu hauek egitean aplikatzeari utzi zaionik, nahitaezkoa bada ere. Era berean, ez dira nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak aplikatu.

4 Zalantzaloratzearen eta zenbatestearen alderdi kritikoak

Fundazioak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren arabera egin ditu bere finantza-egoerak, kontuan hartuta COVID-19aren egungo egoera, bai eta ekonomian oro har eta, bereziki, Fundazioan izan ditzakeen ondorioak ere, eta ez dago bere jardueran jarraitzeko arriskurik, memoria honen 15. oharrean zehazten den bezala, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa nabarmenik eragin dezakeen inolako arrisku garrantzitsurik.

Honekin batera doazen urteko kontuetan Patronatuko kideek egindako estimazioak erabili dira inoiz edo behin, bertan erregistratuta ageri diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk zenbatzeko. Funtsean, estimazio horiek aktibo materialen bizitza erabilgarriari buruzko estimazioak dira.

Baliteke estimazio horiek, urteko kontu hauek egin ziren egunean aztertutako gertaerei buruz eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin arren, etorkizunean izan daitezkeen gertaera batzuen ondorioz hurrengo ekitaldietan aldatu behar izatea (gorantz nahiz beherantz), baina hori aurrera begira egingo litzateke, etorkizuneko galera eta irabazien kontuetan estimazio-aldaketa horrek dituen ondorioak aitortuz.


 Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Presidente

5 Informazioa alderatzea

Merkataritzako legeriaren arabera, urteko kontuek, konparazioetarako, balantzeko eta emaitza-kontuko partida bakoitzarekin, 2020ko ekitaldiari dagozkion zifrez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak ere aurkezten dituzte. Era berean, memoria honetan 2021eko ekitaldiari buruz jasotako informazioa 2020ko ekitaldiko informazioarekin alderatzeko aurkezten da.

2021eko eta 2020ko ekitaldien arteko alderaketa 2.2 oharrean azaldutako inguruabarra kontuan hartuta egin behar da.

6 Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak

Ez da aurkezten balantzearen bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

7 Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak

Ekitaldian ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan.

8 Akats zuzenketa

2021eko ekitaldiko urteko kontuetan ez da sartu 2020 ekitaldiko zifretan antzemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

9 Garrantzi erlatiboa

Memoria honetan finantza-egoeren edo beste gai batzuen partidei buruz banakatu beharreko informazioa zehaztean, Entitateak, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitze arauen kontzeptu-esparruarekin bat etorritz, kontuan izan du garrantzi erlatiboa 2021eko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez.

3.Oharra.- Ekitaldiko Soberakina aplikatzea

2021eko eta 2020ko ekitaldiko emaitza hutsekoa izan da, eta, beraz, ez da banatu behar.

4.Oharra.- Erregistrorako eta balioespenerako arauak

Ekitaldirako urteko kontuak prestatzeko orduan Fundazioak erabilitako balioespen-arau nagusiak, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritz, ondorengo hauek izan dira:

1. Ibilgetu materiala eta ukiezina

Ibilgetu materiala bere eskurapen-kostuaren arabera balioetsia dago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

Konponketa eta mantentze-lanen gastuak horiek gauzatzen diren ekitaldiko emaitzen kontura erregistratzen dira.


Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

Amortizazioa linealki kalkulatzen da kostu-balioen gainean, ehuneko nahikoak erabiliz eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, aktiboak beren bizitza erabilgarrian barrena amortizatu daitezten.

Aplikatu beharreko ehunekoak hauek dira:

Ibilgetu ukiezina % 20

Instalazioak % 15

Informazioaren prozesaketarako ekipak % 25

Beste instalazioak % 10

Altzariak % 15

Beste ibilgetu material bat % 10

2. Finantza tresnak

Fundazioak finantza-tresnen kapituluaren erregistratuta ditu enpresa batean aktibo finantzario bat eta, aldi berean, beste enpresa batean pasibo finantzario bat edo ondare-tresna bat eragiten duten kontratuak. Beraz, arau hau honako finantza-tresna hauei aplikatuko zaie:

a) Finantza-aktiboak:

- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.
- Eragiketa komertzialengatik kredituak: hainbat bezero eta zordun;
- Hirugarrenentzako kredituak: hala nola emandako mailegu eta kreditu finantzarioak, aktibo ez-korrienteen salmentatik sortutakoak barne;
- Bestelako aktibo finantzarioak: kreditu-erakundeetako gordailuak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, eratutako fidantzak eta gordailuak, kobratzeko dibidenduak eta Norberaren ondarea.

b) Finantza-pasiboak:

- Merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak: hainbat hornitzaile eta hartzekodun;
- Kreditu-erakundeetako zorrak;
- Bestelako pasibo finantzarioak: hirugarrenetako zorrak, hala nola kreditu-erakunde ez diren pertsona edo enpresengandik jasotako mailegu eta kreditu finantzarioak, aktibo ez-korrienteen erosketan sortutakoak barne, jasotako fidantzak eta gordailuak, eta hirugarrenek partaidetzen gainean galdatutako ordainketak.

c) Ondare propioko tresnak: funts propioen barruan sartzen diren finantza-tresna guztiak, hala nola jaulkitako akzio arruntak edo kapital sozialeko partaidetzak.

Finantza aktiboak

Sailkapena eta balorazioa -

Fundazioak dituen finantza-aktiboak kategoria hauetakoak dira:

Amortizatutako kostuko aktibo finantzarioak: aktibo finantzario bat kategoria horretan sartzen da, baita merkatu antolatua batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako eskudiru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta aktibo

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

finantzarioaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru-fluxuak sorrarazten badituzte, hau da, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren interesak bakarrik. Ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko printzipalaren eta interesaren kobrantzak baino ez diren kontratuko eskudiru-fluxuak mailegu arrunt edo komun izaera duen akordio bati datzekio, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostearen kaltetan izan gabe. Oro har, kategoria honetan sartzen dira eragiketa komertzialengatiko kredituak (ondasunen salmentan eta enpresaren trafiko-eragiketengatiko zerbitzuen prestazioan sortzen diren aktibo finantzarioak, geroratutako kobrantzarekin), eta eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak, ondare-tresnak eta deribatuak ez izanik, jatorri komertzialik ez duten eta zenbateko jakin edo zehatzeko kobrantzak dituzten aktibo finantzarioak, enpresak emandako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozenak). Hau da, kategoria horren barruan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, bai eta zorra adierazten duten baloreak ere, muga-eguna finkatuta dutenak, zenbateko jakin edo zehatzeko moduko kobrantzak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta Fundazioak muga-egunera arte gordetzeko asmoa eta gaitasuna dituenak.

- Hasierako balorazioa: hasieran arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak gehituta. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten eragiketa komertzialengatiko kredituak, bai eta langileei emandako kredituak, kobratzeko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean galdatutako ordainketak ere, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

- Ondorengo balorazioa: amortizatutako kostuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten kredituak, baldin eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominallean balioesten badira, zenbateko horretan balioetsiko dira aurrerantzean ere, narriatu ez badira behintzat.

Cuando los flujos de efectivo contractuales de un activo financiero se modifican debido a las dificultades financieras del emisor, la empresa analizará si procede contabilizar una pérdida por deterioro de valor.

- Narriadura: Fundazioak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, kobratzeko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta kontabilitateko balioaren artean dagoen aldeagatik..

Ekitaldi-itxieran, behintzat, beharrezko balioespen-zuzenketak egiten dira, baldin eta ebidentzia objektiboa badago kategoria horretan sartutako aktibo finantzario baten edo kolektiboki baloratutako antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten aktibo finantzarioen talde baten balioa narriatu egin dela hasierako aintzatespenaren ondoren gertatu diren gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta etorkizuneko diru-fluxuetan murrizketa edo atzerapena eragiten badute, eta horiek zordunaren kaudimengabeziaren ondorio izan daitezke.


Aktibo finantzario horien balio-narriaduraren ondoriozko galera da haien kontabilitate-balioaren eta etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioaren arteko aldea, berme errealak eta pertsonalak egikaritzetik eratorritakoak barne, hala badagokio. Berme horiek hasieran kontabilizatzean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta sortuko dira.

Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta horien itzulketa, galera horren zenbatekoa ondorengo gertaera batekin lotutako arrazoiengatik murrizten denean, gastu edo sarrera gisa kontabilizatzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga itzulketa-datan kontabilizatuta egongo litzatekeen aktiboaren kontabilitate-balioa da, balio-narriadura erregistratu izan ez balitz.

Aktibo finantzarioen birsailkapena-

Erakundeak bere aktibo finantzarioak kudeatzeko modua aldatzen duenean diru-fluxuak sortzeko, eragindako aktibo guztiak birsailkatuko ditu, arau honen aurreko apartatuetan ezarritako irizpideen arabera. Kategoriaren birsailkapena ez da balantzean baja emateko kasu bat, balorazio-irizpidea aldatzea baizik. Birsailkapen hauek egin daitezke:

- Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian birsailkatzea, eta alderantziz..


 Javier Larrañaga Garmendia jauna
 Presidente

- Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak ondare garbiko aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian birsailkatzea, eta alderantziz.
- Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian birsailkatzea, eta alderantziz.
- Kostuan balioztatutako ondare-tresnetan egindako inbertsioak galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kategorian birsailkatzea, eta alderantziz.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Eskuratze-unearen ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak sarrera gisa kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Kostu amortizatutako aktibo finantzarioen interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez kontabilizatzen dira, eta ondare-tresnetan egindako inbertsioetatik eratorritako dibidenduen sarrerak, berriz, horiek jasotzeko eskubideak sortu direnean aitortzen dira.

Aktibo finantzarioen hasierako balorazioan, mugaegunaren arabera, modu independentean erregistratzen dira une horretan sortutako eta mugaeguneratu gabeko interes esplizituen zenbatekoa, bai eta eskurapenaren unean organo eskudunak erabakitako dibidenduen zenbatekoa ere.

Era berean, banatutako dibidenduak eskuratze-dataren aurretik sortutako emaitzetatik badatoz zalantzarik gabe, eskurapenetik partaidetuak sortutako mozkinak baino zenbateko handiagoak banatu direlako, ez dira sarrera gisa aitortzen, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

Partaidetuak mozkinak sortu ote duen erabakitzeko, eskuratze-datatik aurrera galdu-irabazien kontu indibidualean kontabilizatutako mozkinak soilik hartzen dira kontuan, salbu eta, zalantzarik gabe, mozkin horien kargurako banaketa inbertsioaren berreskurapen gisa kalifikatu behar bada dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

Finantza-aktiboen baja

Fundazioak baja ematen die aktibo finantzarioei, aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean, eta bere jabetzari datxekzion arriskuak eta mozkinak funtsean transferitu direnean. Kobratzeko kontuen kasuan, oro har, kaudimengabezia- eta berandutza-arriskuak transmititu badira gertatzen da hori.

Aktibo finantzarioari baja ematen zaionean, egotzi daitezkeen transakzio-kostuetatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldeak, ondare garbian zuzenean aintzatetsitako edozein zenbateko metatuk gehituta, aktiboari baja ematean sortutako irabazia edo galera zehazten du, eta hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte da.

